



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK

Argitalpen-data: 2014

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

INGURUMEN-INPAKTU TXIKIAGOA DUEN AHOLKULARITZA-ZERBITZU BAT KONTRATATZEA

Aholkularitza-zerbitzuen kontratuak plan estrategikoak gauzatzeko, azterketak egiteko, programak ezartzen laguntzeko eta abarrerako laguntza tekniko eta aholku-emaileak dira.

Kontratazio eta erosketaren bidez, eragin positiboa izan dezakegu zerbitzu horretan, zerbitzuari dagozkion zeregin eta jardunetan ingurumen-irizpideak sartuta. Nola? Ikus ditzagun kontuan hartu beharreko *kontzeptu-giltzarri*, *ingurumen-irizpide* eta funtsezko beste datu batzuk, baliagarriak izan baitaitezke zerbitzu-mota hori kontratatzeko.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Aholkularitza-zerbitzu berde batek ingurumen-inpaktua ahalik eta gehiena gutxitzea du helburu. Xehetasunen berri izateko, hauek dira horrekin lotutako ideia batzuk:

Zenbait kontzeptu nagusi

Aholkularitza-zerbitzu baten zer alderdik eragiten dituzte ingurumen-inpaktu negatiboak?

1. Bulegoko lanetik eratorriek: energia-kontsumoa (argiztapena, berokuntza eta klimatizazioa, eta gailuen funtzionamendua), hondakinen sorrera eta uraren kontsumoa bainugela eta sukaldeetan.
2. Materialen eta dokumentuen garraioak: dokumentuak euskarri fisikoan (paperean, CDetan eta abar) inprimatzea, eta dokumentuak garraiatzea.
3. Atmosferara CO₂ eta bestelako gas kutsagarriak isurtzeak, lana dela medio, hitzaldi, jardunaldi edota hainbat bileratara egin beharreko joan-etorrien ondorioz.
4. Azpikontratutako hirugarren enpresek eragindakoek, lan hauek egiteko: argitaratzeak, jarduerak, entseguak...

Inpaktu horiek minimizatzeko, zer egin daiteke?




- Kanpo-zerbitzu horien kontratazioa arrazionalizatzea.
- Bulegoko lanari lotutako kontratua egikaritzean inpaktuak minimizatzea, ingurumen-irizpideak ezarrita.
- Dokumentuen ingurumen-kalitatea bermatzea. Horretarako ,euskarri fisikoak erabiltzea saihestu behar da, ahal den heinean. Ezin badira saihestu, ingurumen-irizpideak betetzea eskatu behar da paper-motari, inprimatzeko hobespenari eta abarri dagokienez.
- Kontratua dela-eta egin beharreko bidaia-kopurua murriztea, eta ezinbestekoak diren bidaien eragin negatiboak minimizatzea.
- Kontratu-atalak azpikontratatzean —esaterako, inprimategiak, laborategiak, areto edo barrutiak eta abar— sortzen diren ingurumen-eraginak gutxitzea.

Arlo horri lotutako ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- **Aholkularitza-enpresen ziurtagiriak:** Aholkularitza-enpresek Ingurumena Kudeatzeko Sistema nagusietako baten ziurtagiria izan dezakete (EMAS, ISO 14001, Ekoscan...). Ziurtagiri horiek legea betetzen dela eta zerbitzua ematean ingurumen-jardunbide egokiak betetzen direla bermatzen dute. Hortaz, enpresak aukeratzekoan,

Zenbait kontzeptu nagusi

lehenasuna eman dakieke Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren baten ziurtagiria dutenei edo erantzukizun sozial korporatiboko politikak dituztenei.

EMAS	ISO 14001	Ekoscan
		

- Aholkularitzaren alorrean erabiltzen diren produktuetan (papera, informatikako ekipoa, ibilgailuak, argitalpenak) ingurumen-irizpideak ezartzeko eta haiek betetzen direla egiaztatzeko beste ziurtagiri baliagarri batzuk produktu eta zerbitzu horiei dagozkien laburpen-fitxetan zehaztuta daude.



KONTRATAZIOK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Ingurumen-irizpideak dituen aholkularitza-zerbitzu bat kontratatzeko prozesuan, zenbait unetan erabaki edo eragiteko aukera dugu. Zer unetan? Nola izan iraukor?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. Urratsa. Beharrak

“Murriztu daiteke aholkularitza-kontratuen kopurua?” Hori da erantzun beharreko lehen galdera. Hona hemen horretarako alternatiba batzuk:

- Lanak erakundean bertan egiten saiatzea, kanpokoei agindu ordez. Horretarako, erakundeak eskuragarri dituen baliabideak aztertu, eta gutxieneko trebakuntza osagarria eskaini behar du.
- Jada existitzen den informazio, material eta azterketen bilketa kontratatzea lehendabizi, azterketa edo lan zehatz bat egiteko beharrik badagoen erabakitzeko. Baliteke jada eginda dagoen lana aski izatea.
- Beste entitate edo erakundeek jada egindako materiala erabiltzea eta, behar izanez gero, testuinguru zehatz horretara egokitzea. Horretarako, harreman-sare on bat eduki behar da.
- Beste erakundeekin lana egitea, guztientzako baliagarriak diren produktuak elkarrekin garatzeko.

1. Urratsa. Beharrak

- Kontratuen arteko sinergiak aprobetxatzea, lanak bikoiztu beharrean, batzuen eta besteen emaitzak eta zerbitzuak berrelikatzeko.

Aholkularitza-zerbitzuaren jomuga diren behar eta edukiak ongi zehaztu eta mugatzea, arreta eta ahaleginak lehentasun txikiagoa duten gai edo arloetara ez bideratzeko.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. Urratsa. Zerbitzuaren kontratazioa

Gure nahierarako aholkularitza-zerbitzua zehaztu ondoren, ingurumenarekiko begirunetsua den kontratazioa egiteko eskaintzen aurkezpenetan eta kontratuaren egikaritzean ingurumen-irizpideak txertatu behar dira. Irizpideak oinarriko ingurumen-eskakizunaren arabera edo eskakizun aurreratuaren arabera izan daitezke.

Eskaintzen aurkezpenei aplikagarriak zaizkien ingurumen-irizpideak:

Eskaintza teknikoaren orri-kopurua mugatu (proiektu-motaren arabera), eta aurkezpena modu honetara egitea exijitu behar da:

- Eskaintza ez bada oso zabala: Ahal bada % 100 birziklatua den papera (kontsumo ondoko zuntz edukia % 65ekoa edo handiagoa) eta klororik gabekoa (TLC) erabili behar da. Halakorik ezean, zuntz edukiaren % 20 baso-kudeaketa jasangarritik eratorritakoa eta/edo birziklatutakoa duen birziklatu gabeko papera erabili, bi aldeetatik inprimatuta eta zuri-beltzean (zuri-beltzean interpretatu ezin bada soilik erabili behar da kolorea; bestela, ez), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe.
- Eskaintza oso zabala bada: Formatu elektronikoan, itxi gabeko CD birgrabagarrian edo antzeko gailu batean, ondoren grabaketa gehiago egin ahal izateko.

Kontratua egikaritzeko ingurumen-irizpideak:

Zerbitzu edo proiektuak direla medio egin beharreko joan-etorriei dagokienez, eskakizun aurreratuko irizpide gisa, enpresa esleipendunari hau eskatzea gomendatzen da:

- Kontratuaren hasieran: Joan-etorri horien inpaktuak murrizteko plana. Plan horretan sartu behar dira: garraio-beharrak (bileretarako, prestakuntzarako...), haien helburuak, eta haien eraginez sortutako inpaktuak murrizteko proposatzen diren neurriak jasotzen dituen zerrenda (bidaiak egitea ekiditen duten neurriak lehenetsi behar dira, hala nola bideokonferentziak, telekonferentziak eta abar.
- Kontratua bukatutakoan: Enpresa-esleipendunak eta inplikaturako eragileak edo onuradunak sortutako CO₂-isuriei buruzko txosten bat.

Txostenen eta dokumentuen aurkezpenetan:

- Lan-dokumentuak eta amaierako dokumentuak: Paperaren kontsumoa murrizteko, formatu elektronikoan entregatuko dira, posta elektroniko bidez, edo zerbitzariaren

2. Urratsa. Zerbitzuaren kontratazioa

bitartez; bestela, birgrabagarria den eta irekitako CD, DVD edo antzeko gailu batean, berriro erabili ahal izateko.

- Dokumentua inprimatzea beharrezkoa bada, edo kontratatzaileak hala eskatzen badu, esleipendunari hau eskatu behar zaio:
 - ⇒ Inprimaketa-kopurua ahalik eta gehiena murriztea, beharretara egokituta.
 - ⇒ Ahal bada % 100 birziklatua den papera (kontsumo ondoko zuntz edukia % 65ekoa edo handiagoa duena) eta klororik gabea (TLC) erabiltzea. Halakorik ezean, zuntz edukiaren % 20 baso-kudeaketa jasangarritik eratorritakoa eta/edo birziklatutakoa duen birziklatu gabeko papera erabiltzea.
 - ⇒ Kontratuaren hasieran, erabiliko dituen birziklatutako eta/edo birziklatu gabeko paperen dokumentazioa aurkeztea, kontratatzaileak baimendu ditzan.
 - ⇒ Dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatzea (zuri-beltzean interpretatu ezin bada soilik erabili behar da kolorea; bestela, ez), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago daudela (hala komeni bada eta ulertzeko moduan dagoela bermatzen bada), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).
- Ingurumen-kudeaketari dagokionez, hauek dira esleipendunaren betebeharrak:
 - ⇒ Hondakinen berrerabilpena eta/edo gaikako bilketa, zatiak bereiziz, behar bezala kudeatzeko.
 - ⇒ Kontratuaren hasieran, kontratua gauzatu behar duten langileak ingurumen-arloan trebatzea.
 - ⇒ Ingurumen-informazioa duten lan-aginduak prestatzea, eta langunean eskuragarri egotea.
- Esleipendunak hirugarren enpresen zerbitzuak azpikontratatu behar baditu, edo beste produktu edo zerbitzu batzuk eskuratzea eskatzen duten zereginak egin behar baditu:
 - ⇒ Zerbitzu eta/edo produktu horiek Ihoberen Kontratazio eta erosketa publiko berderako eskuliburu praktikoan jasota badaude, zehaztutako irizpideei jarraitu behar zaie, eta haiek betetzen direla egiaztatu behar da.
 - ⇒ Zerbitzu eta/edo produktu horiek ez badaude eskuliburu horretan jasota, haiek erosterakoan /kontratatzekoan ingurumen-irizpideak hartu behar dira kontuan, eta irizpide horiek betetzen direla egiaztatu behar da.

Kontratua esleitzeko ingurumen-irizpideak:

- Enpresa eskaintzaileek kontratua egikaritzean/zerbitzua eskaintzean ingurumen-inpaktuak murrizteko dituzten baliabideak baloratuko dira: energetikoki eraginkorrak diren ekipoak edukitzea, ingurunearekin begirunetsua den bulego-materiala erabiltzea... Neurri horiek ingurumen-jardunbide egokien dekalogoan jaso behar dira eranskin gisara. Eskaintzaileak dagozkion egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.

2. Urratsa. Zerbitzuaren kontratazioa

Eskakizun-maila aurreraturako, zenbait alorretan (energia, mugikortasuna eta hondakinak) ingurumen-prozedura eta -kudeaketa egokia sartuta izatea eska dakioko enpresari, eta enpresaren gainerako ingurumen hobekuntzak baloratu, ondoren.

- Ingurumen-kudeaketarako sistema bat edukitzea erabaki badu enpresak, balorazio hori ez da hain beharrezkoa izango.

Irizpide horietatik guztietatik garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak balioetsi edo exijitu behar ditugu kontratazioan.

Prozedura ireki edo negoziatu baten bidez aholkularitza-zerbitzu bat kontratatu nahi duten administrazioen kasurako, Ihobek argitaratutako *Kontratazio eta erosketa publiko berderako gidaliburu praktikoan* jasotzen dira baldintza-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (bi eskakizun mailetarako: oinarritzkoa eta aurreratua), Sektore Publikoko Kontratuen Legeari jarraiki.

NOLA KUDEATU HONDAKINAK?

3. unea: hondakinen kudeaketa

Aholkularitza-zerbitzuetan beharrezkoa da sortutako hondakinak behar bezala kudeatzea. Batez ere sortutako material eta dokumentuak dira. Behar bezala kudeatu behar dira, ondoren bildu eta birziklatu ahal izateko:

- Paperezko dokumentazioa: papera biltzeko berariazko ontzietara bota behar da.
- CDak eta DVDak: ezin badira berrerabili, Udalako edo beste hondakinak kudeatzeko zerbitzu baten bidez, produktu horiek kudeatzeko euskal ekimenaren bidez, kudeatu behar dira. Oharra: informazio gehiagorako, kontsultatu bulego-ko materialen laburpen-fitxa.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.